

1. gaia

ZUZENBIDE ZIBILA LEGEEN ANTOLAKETAREN BARRUAN

1. Kontzeptua
2. Zuzenbide zibila: kode zibila eta lege bereziak
 - a) Kode Zibila
 - i) Kode Zibilaren argitarapenaren uneko egoera.*
 - b) Lege bereziak
3. Kode zibilaren atari titulua
4. Zuzenbidearen iturriak
 - a) Iturrien zerrendaketa eta hierarkia
 - i) Legea*
 - a) Argitarapena
 - b) Aldarrikapena
 - c) Legearen argitarapen eta aldarrikapenaren ondorioak
 - d) Legea nola sartzen den indarrean eta bere iraupena
 - e) Derogazioa edo indargabetzea
 - f) Atzerako eragina eta atzerako eraginik eza
 - ii) Ohitura eta usuarioak*
 - iii) Zuzenbidearen printzipio orokorrak*
5. Jurisprudentzia
6. Zuzenbide zibil autonomikoa

1. KONTZEPTUA

Zuzenbidea, giza helburuak lortzeko eta elkarren arteko bizitza bakean antolatzeko, gizartetik sortzen den arau multzoa da. Beraz, gizartea osatzen duten gizon-emakumeek, gizakiek alegia, bizi dituzten egoerak eta gauzatzen dituzten portaerak arautzea da zuzenbidearen helburua. Gizakien elkarbizitzak berak nahitaez dakar zuzenbidea, gizakiak elkarturik eta harremanetan bizi diren heinean sortzen baita. Hortaz, bere helburu nagusia gizakien artean sor litezkeen interes gatazkak era baketsuan konpontzea da.

Gizaki bakoitzaren eremua eta gainerakoen eremua ondo bereiztea oso garrantzitsua da, herritar bakoitzak jakin dezan zein den bere eskubide eremua. Honi esker, bakoitzak jakingo du zer ez duen egin behar, zer errespetatu behar duen eta era berean, komunitatearen ardurak asetzeko bere ekarpena zein izan behar duen, elkarrekin bizitzea horrela posible egiten baita. Ondorioz, gizarteak berak aipatu jokabide-erregela multzoa asmatzen du eta hain zuzen, hauxe da zuzenbidea.

Legeen sistema atalka egituraturik dago, arautu beharreko gizarte errealtatearen arloak zein diren kontuan izanik. Gauzak honela, zuzenbidea arlo ezberdinetan sailkatua dagoela baieztatu dezakegu, gizarteak berak eskatzen duen

espezializazio beharraren arabera (medikuntzaren arloan gertatutakoaren antzera): zuzenbide politikoa, merkataritza zuzenbidea, auzi zuzenbidea, administrazio zuzenbidea, lan zuzenbidea, nazioarteko zuzenbidea besteak beste.

2. ZUZENBIDE ZIBILA: KODE ZIBILA ETA LEGE BEREZIAK

Zuzenbide zibila pertsonaren arazoez arduratzen den zuzenbide pribatua da, baina pertsona ororen arazoez arduratzen dena besterik gabe, eta ez enpresario, langile edota abarren arazoez.

Zuzenbide zibilak gizakiengandik gertuen dauden gaiak arautzen ditu, alegia, pertsonaren eguneroko bizitzan eta intimitatean etengabe eta sendo zeresana duten arloak: nortasunaren eskubideak; eginkizunak edo eskubideak eta besteekin harremanetan jartzeko edo besteak lotzeko gaitasuna (ahalmena); sendiaren barneko harremanak eta egoerak; gauzen eta eskubideen gozatzea eta eskuratzea (eskubide errealak eta obligazio eskubideak); gauzen eta eskubideen gozatzea eta eskuratzea heriotzaren ondoren (*mortis causa* deituriko eskuratzea edo oinordetza). Ikus dezakegunez, zuzenbide zibilak pertsona bere baitan arautzen du, bai bere familia eremuan zein bere ondarezko harremanetan.

Zuzenbide zibila erromatar garaian sortu zen. Antzinako sistema honek gizartearen arlo pribatua zein publikoa arautzen zituen.

Erdi Aroan ordea, erresuma bakoitzak bere berezko zuzenbide publikoa zuenez, ez zuen behar erromatarrek sortutako araudi publikoa, baina bai ordea, zibilizazio zahar horrek asmatu zuen harreman pribatuak arautzeko erregela-multzoa, erresuma bakoitzak garatu zuena baino osoagoa baitzen. Beraz, aipatu Erdi Aroko erresuma horiek, geroxeago azalduko dugun eran, erromatar garaiko arlo pribatua arautzen zuten erregela-multzoa bereganatzen dute. Hau dela eta, gaur egun zuzenbide zibila zuzenbide pribatuaren barruan soilik kokatzen da alegia, zuzenbide zibilak zuzenbide pribatuko harremanak soilik arautzen ditu eta ez ordea, harreman juridiko publikoak.

XX. mendearen hasieran, industri iraultzaren ondorioz, hirietan langile multzo handiak elkartu ziren. Horren ondorioz sindikalismoa sortu zen, helburua langileen eskubideak aldarrikatzea izango zuela. Mugimendu honen ondorioz, lanaren esparrua zuzenbide orokorretik, zuzenbide zibiletik alegia, bereiztu zen, berezko zuzenbide atal bihurtuz. Zuzenbide atal hau, hasieran negoziazio kolektiboaren inguruan antolatu zen, gero beste eremuetara zabandu bazen ere, hots, merkatarien eremura, esparru administratibo eta politikoetara (gizarte-asegurantza, laneko segurtasun eta higiena, lan harreman eta gatazkak, sindikatuak e.a.). Esparru honek hartu zuen berezitasuna zela medio, berezko auzitegiak ere sortu ziren, zeinen jarduera lan harremanetara mugatu zen. Lan zuzenbide honetan zuzenbide pribatuko ezaugarri batzuk badaude, baina baita zuzenbide publikoko zenbaitzuk ere (esate baterako, enpresariaren eta langileen arteko adostasunaren bitartez lorturikoak eta legeak langileari onartu dizkion zenbait eskubide, langileak ezin die ukatu, borondatearen askatasuna horrela murriztuz, kasu honetan langilearen beraren onurarako).

Gaur egungo zuzenbide zibilak ez du bere jatorria erromatar zuzenbidean, baizik eta Frantses Iraultzaren printzipioetan: indibidualismoa, arrazionalismoa eta bizitzaren erlijio ikuspuntuaren lagapena. Frantses Iraultzak, ordura arte existitzen ez zen herritarren arteko berdintasunaren printzipioa finkatu zuen, eta horren ondorioz, zuzenbide zibilean inposatuz bere aldetara behartu zuen, beraz, zuzenbide pribatua,

zuzenbide zibiletik sortzen da.

a) KODE ZIBILA

Kodea, printzipio orokorreko multzo murriz batean oinarrituta dago, eta printzipio hauetatik beste batzuk eratorri ahal izango ditugu, guztien artean bai orain zein etorkizunean sor liteken edozein gatazka erabakitzeko gai izatea espero baita.

Espainiako Kode Zibilak Frantziako estatuko 1804. urteko Kodean du aitzindaria. 1812. urtean Cadiz-eko Konstituzioak honako proposamena jaso zuen aipatu Frantziako estatuko 1804ko Kodeari jarraiki: *Lehengo iturri zahar eta historikoak ordezkatzeko zuzenbide zibila eta penala bere osotasunean izan eta sistematizatzen dituzten kodeak sortu behar dira.*

i) Kode Zibilaren argitarapenaren uneko egoera.

Erdi Aroan autonomia politikoa eta independentzia ekonomikoa zituzten lurraldeak zeuden eta batzuek beren berezko legeria zutenak ere: Katalunia, Balear Uharteak, Aragoi, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, besteak beste.

Arestian azaldu dugunez, 1812. urteko Konstituzioaren helburua zuzenbide publiko zein pribatua batzea edota kodetzea zen. Kodetzeko jarduera horren ondorioz Espainiako estatu osoarentzat Kode Zibila, Merkataritza Kodea eta Zigor Kodea indarrean sartu ziren.

Azaldu dugu jadanik, Kode Zibilaren 1851. urteko egitasmoa garai honetako garrantzitsuenetarikoa izan zela, baina honek ez zuen azken onarpena jaso ez baitzituen foru lurraldeetan oraindik bizirik zeuden zuzenbide pribatu bereziak errespetatzen. Beraz, foru aldekoen erantzuna bortitza izan zen eta legea onartua ez izatea lortu zuten.

1851. urteko egitasmoaren porrota ikusirik 1880. urtean errege-dekretu batek onartu zuen Kodetzeko Batzordean foru lurralde bakoitzetik ordezkari bat egotea. Honenbestez, 1888. urteko egitasmoak lurralde hauekiko errespetu handiagoa erakutsi zuen. Gaur egun indarrean dagoen Kode Zibilaren 13. artikulua jasotzen du azken egitasmo honek bere 12. artikuluan esaten zuena:

"1. Espainian aplikazio orokor eta zuzenekoa izango dute atariko titulu honen xedapenek, legeen ondoreak eta legeen aplikaziorako erregela orokorrak zehazten dituzten neurrian..."

2. Gainerakoan, eta probintzietan nahiz lurraldeetan indarrean dauden zuzenbide bereziak edo foru-zuzenbideak oso-osorik errespetatuz, Kode Zibilak ordezeko zuzenbide moduan aplikatuko da, baldin eta ez badago probintzia nahiz lurralde horietako arau berezien arabera aplikatu beharreko ordezeko zuzenbideak."

b) LEGE BEREZIAK

Kodeak bere garaiko zein etorkizuneko gatazka guztiei erantzuna ematea zuen helburu. Kode Zibila, dena den, erabilgarria gerta behar zaio legeak aplikatzen dituenari eta hortaz, hasieratik nabaritzen zen gai guztiak ezin izango zituela erabat arautu. Hargatik, zenbait gaitan, Kode Zibilak oinarritzko irizpide batzuk xedatu zituen soilik, eta beren garapena lege berezien eskuetan utzi zuen. Adibide gisa ondoko lege

berezi hauek aipatuko ditugu:

- Erregistro Zibilari buruzko Legea Kode Zibilaren aurrekoa zen, 1870. urtekoa alegia. Lege hau 1957an berriztatua izan zen, Kode Zibilak ezartzen zituen printzipioetara moldatuz.
- Hipoteka Legea(1869). Lege hau ere Kode Zibila indarrean sartu aurrekoa zenez, 1946. urtean berriztatua izan zen.
- Jabetza Horizontalari buruzko Legea, honako hau 1960 urtekoa delarik, 1988,1990,1992 eta 1999 urteetan egindako aldaketak jasotzen dituelarik.
- Urei buruzko Legea: jatorrizkoa 1879. urtekoa zen. 1985. urtean lege berri bat indarrean sartu zen gai honi buruz.
- Meategiei buruzko Legea. Indarrean dagoen legea 1973 urtekoa da..
- Jabetza Intelektuala eta Jabetza Industrialak besteak beste.

3. KODE ZIBILAREN ATARI TITULUA

1. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK (KZren 1. artikulua)

a) Legea

Arauen indarraldia eta eraginkortasun esparrua

a) Indarraren hasiera eta amaiera

- Indarrean jartzea (KZren 2.1. art.)

- Indargabetzea (KZren 2.2. art.)

b) Arauen atzeraeragina eta atzeraeraginik eza (KZren

2.3. art.).

Lege motak

b) Ohitura

c) Zuzenbidearen printzipio orokorrak

2. JURISPRUDENTZIA

3. ARAUAK APLIKATZEA

a) Interpretazioa (KZren 3. art.)

b) Interpretatzeko irizpideak

Hitzez hitzeko esangura

Irizpide historikoa

Elementu sistematikoa

Erregela logikoak

Elementu teleologikoa

Elementu soziologikoa

c) Integrazioa

Hutsuneak osatzea

Analogia (KZren 4. art.)

Ekitatea (KZren 3.2. art.)

d) Ordeztailetasuna (KZren 4.3. art.)

4. ARAUEN ERAGINGARRITASUNA

a) Arauak betetzea

Arauak betetzeko eginbehar orokorra

Arauak ez ezagutzearen desenkusa ezintasuna (KZren 6.1. art.)

Arauk ezagutzeko eginbeharra (KZren 1.7. art.)
Zuzenbidean okerrak duen garrantzia

b) Arauk urratzea

Arauk ez betetzea: urratzea
Arauei itzuri egitea: lege iruzurra (KZren 6.4. art.)
Araua urratzearen zigorra
Legearen aurkako egintzen deuseztasuna (KZren 6.3. art.)

b) Banakoen borondatez aplikagarria den legea baztertea

ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

1.LEGEA

LEGEA ZENTZU HERTSIAN

Konstituzioa
Lege organikoa
Lege arrunta
Lege autonomikoak

ESTATUKO EXEKUTIBOAREN BOTERE LEGEGILEA

Legegintza-dekretua
Lege-dekretua

ADMINISTRAZIO ETA GOBERNUEN BOTERE ERREGELAMENDUGILEA

Ministroen Kontseiluaren dekretuak
Ministroen aginduak
Xedapen administratiboak
Behe mailako xedapenak: (erabakiak, zirkularrak, jarraibideak)

EUROPAR BATASUNAREN ARAUAK

Erregelamenduak
Direktibak
Erabakiak
Irizpenak eta gomendioak

2. OHITURA

3. ZUZENBIDEAREN PRINTZPIO OROKORRAK

4. ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

"Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak." (KZren 1.1. art.).

Espainiako zuzenbideak hiru iturri baino ez ditu onartzen: legea, tokiko ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.

Hortaz, zer da zuzenbide iturri bat? Zuzenbidea, esan dugunez, gizakien arteko gatazkei konponbide baketsua emateko gizarteak berak sortu duen baliabidea da. Konponbide horiek zenbait arautan adieraziko dira eta zuzenbidearen iturriek, aipatu arauak nondik sortzen diren esango digute. Kode Zibilak, ikusi dugunez, arauak legeetatik, ohituretatik eta zuzenbide printzipio orokorretatik sor litezkeela dio.

Hasteko, azter dezagun zer den arau bat, gerorako utziz arauen iturrien azterketa zehatza.

Araua hipotesi eta ondorio batez osaturik dago. Adibidez, Kode Zibilak xedatzen duenez pertsona bat aita edo ama bada (hipotesia) bere seme edo alaba elikatzera, heztera eta janztera behartuta dago (ondorioa).

Arauk dituen ezaugarriak honako hauek dira:

a) Araua abstraktua da, arauak hipotesia ezartzen baitu. Ez da pertsona zehatz batean pentsatzen ari hipotesia jasotzen duenean, aitzitik, edozein gizakiri gerta lekiokkeen egoera bat jasotzen du.

b) Araua orokorra da, hipotesi hori dagoen guztietan sortuko baita ezartzen duen ondorioa.

c) Araua hertsagarria edo nahitaezkoa da, bete behar duenak borondatez bete nahi ez badu, indarrez betearaziko baitzaio. Bete ez eginez gero, indarrez inposatu ahal izango da, horretarako dauden bitartekoak erabiliz (kartzela zigorra, ondasunen bahitura, isunak eta abar...).

a) Iturrien zerrendaketa eta hierarkia

Kode Zibilaren 1. artikulua argitzen du zein den iturrien ordena. Lehendabizi legea, legerik ezean ohitura, eta ohiturarik ez balego zuzenbidearen printzipio orokorrak aplikatuko lirateke.

Elementu garrantzitsu bat agertzen da Konstituzioan, bere nazioartekotasuna, hain zuzen ere. Bertan, Konstituzio egileek, Espainiako estatuak Europako Batasunean izango zuen sarrera, aurreikusi nahi izan zuten. Bada, Konstituzioaren 93. artikulua xedatzen duenaren arabera, *"Lege organikoaren bidez itunak sinatzeko baimena eman daiteke; hauek direla eta, nazioarteko erakunde edo instituzio bati atxikitzen zaio Konstituziotik eratorri daitekeen konpetentzien erabilpena. Gorte Orokorrei edo Gobernuari dagokio, kasuan kasu, itun hauek betetzeko garantia, baita nazioarteko edo nazioen gaineko erakundeek emandako erabakiak ere"*.

i) LEGEA

Lege hitzak esanahi desberdinak ditu : hizkuntza arruntean, lege hitza, fisikako legez aritzeko zein gizakien elkarbizitza arautzeko erabiltzen dugu. Hortaz, ikus daiteke nola hitz honek zentzu desberdinak har ditzakeela. Guri dagokigunez, ikuspegi juridikotik alegia, lege berbak ondoko esanahia izango du: horretarako eskuduntza duen botere publikoak emandako arau idatzia, zeina abstraktua eta orokorra den. Honi lege materiala deritzogu.

Zentzu hertsian, legea botere legegileak soilik emandako araua izango da, bera baita legeak onartzeko Konstituzioaren arabera eskuduntza duena. Honi lege formal deritzogu.

Dena dela, botere exekutiboak ere, batzuetan, lege formalak duen mailako xedapenak egiteko ahalmena izango du. Kontuan izan halere, botere exekutiboak lege formalak ematen dituen botere legegilearen eskuordetzea dela medio egingo dituela, aipatu eskuordetzea aurretik edo gerora onetsia bailiteke.

a) Argitarapena

Konstituzioak 9.3. artikuluan zera adierazten du: *"Konstituzioak arauen argitarapena bermatzen du"*. Gauza bera jasotzen du Kode Zibilak bere 2.1. artikuluan: *"Legeak indarrean jarriko dira "Estatuko Aldizkari Ofizial"ean oso-osorik argitaratu eta hogeigarren egunean, legeetan eurretan besterik xedatu ez bada"*. Bada, argitarapena ezinbesteko baldintza izango da legeak indarrean sartzeko.

Argitarapenaren ondorioz, herritarrek ezagutu ahal izango dute legearen edukia, isilpeko legerik onartzen ez baitira, eta indarrean sartzeko epe bat finkatzen da. Argitarapena, estatuko edo komunitate autonomo ezberdinetako aldizkari ofizialetan gauzatzen da.

b) Aldarrikapena

Konstituzioak bere 91. artikuluan zera adierazten du: *"Erregeak 15 eguneko epean, berretsiko ditu Gorte Orokorrek onartutako legeak, eta promulgatu eta aginduko du haien berehalako argitarapena"*.

c) Legearen argitarapen eta aldarrikapenaren ondorioak

a) Legea argitaratu ondoren bete beharreko bihurtzen da. Kode Zibilaren 6.1. artikulua hitzez hitz honela dio: *"Legeak ez ezagutzeak ez du legeok ez betetzetik desenkusatzen"* (legea ez ezagutzea ez da legea ez betetzeko aitzakia). Horrek ez du esan nahi legeak ezagutu behar ditugunik, baizik eta bete behar ditugula nahiz eta ezagutu ez.

b) Epaileak epaitzeko duen beharra. Epailea, ordea, lege guztiak ezagutzera behartua dago. Horri buruz, hona hemen Kode Zibilak bere 1.7. artikuluan agintzen duena. *"Epaile eta auzitegiek, eginbehar desenkusaezina dute, kasu orotan, euren eskumeneko gaiak ebazteko, ezarritako iturri- sistemari helduz"*.

d) Legea nola sartzen den indarrean eta bere iraupena

Lehen aipatutako Kode Zibilaren 2.1. artikulua arabera, legeak indarrean jarriko dira "Estatuko Aldizkari Ofizial"ean osorik argitaratu eta hogeigarren egunean, lehen aipatu dugun salbuespenarekin, hau da, legean bertan bestelakorik xedatzen ez den bitartean.

Halaber, Kode Zibilak 2.2. artikuluan honela dio: *"Geroko legeek bakarrik indargabetzen dituzte indarreko legeak"*. Beraz, legeak behartzen jarraituko du bere edukiarekin bateraezina den beste lege bat aldarrikatzen ez den bitartean.

e) Derogazioa edo indargabetzea

Orokorrean legeek iraunkorrak izateko joera dute, eperik gabe egiten baitira etorkizunari begira.

Zenbait kasutan legeak berak ezarriko du zein izango den bere iraupen epea, esate baterako, Aurrekontuetako Legeak urtebeteko epea du, eta premiazko egoerak arautzeko aldarrikatzen diren lege-dekretuak, premiazko egoerak dirauen bitartean indarrean egongo dira soilik. Ikus Kode Zibilaren 4.2. artikulua: *"Zigor-legeak, salbuespenekoak eta aldi baterakoak ez dira aplikatuko, eurok beren beregi jasotako kasuetan eta uneetan baino"*.

Dena den, legeek gehienetan ez dute eperik eta eduki bereko baina era desberdinean arautzen duen lege berri bat aldarrikatu arte indarrean egongo dira.

Kode Zibilaren 2.2. artikulua arabera, *"Geroko legeek bakarrik indargabetzen dituzte indarreko legeak. Indargabetzearen norainokoa beren beregi xedatuko da, eta indargabetze hori hedatuko da lege berrian gai berberari buruz aurrekoarekin bat ez datorren guztira. Lege bat indargabetze hutsagatik ez dira indarrean jartzen lege horrek indarrik gabe utzi zituenak"*.

Indargabetze motak:

a) **Osoa**: Indargabetzea erabatekoa izango da, lege berriak espresuki une horretara arte indarrean egon den legea osorik indargabetzen duenean.

b) **Zatitakoa**: Indargabetzea zatitakoa izango da, lege berriak aurreko legearen

arlo batzuk bakarrik indargabetzen dituenen.

Beste sailkapen mota bat ere egin dezakegu:

a) **Berariazkoa**: Lege bat espresuki indargabetzen da, lege berriak aurreko zein lege indargabetzen duen adierazten duenean.

Teknika hau bi eratakoa izan daiteke:

1) Legegileak zehazki adierazten du zein lege indargabetzen diren. Horrela gertatzen da EKren disposapen derogatzailearen 1. atalean, non Konstituzio aurreko zenbait lege espresuki indargabetuak suertatzen baitziren.

2) Legegileak erabili ahal izango du ere indargabetzeko formula orokor bat zeinaren bitartez, lege horren aurka dauden beste arau guztiak indargabetzen baitira. Hau ikus dezakegu, Konstituzioaren disposapen derogatzailearen 3. atalean, zeinek hitzez hitz honela baitio: *"Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio honen aurka ezartzen diren disposapen guztiak"*.

b) **Isilekoa**: Kode Zibilak indargabetze mota hau 2.2. artikuluan aurreikusten du *"... Indargabetze hori hedatuko da lege berrian gai berberari buruz aurrekoarekin bat ez datorren guztira"*.

Indargabetzeko formularik ezean, praktikan interpretatu beharko da kasuan-kasuan zer batera daiteken eta zer ez, ez baita onargarria gai bera elkarren aurkako lege ezberdinek arautua izatea. Praktikan, zoritxarrez, askotan ematen da isileko indargabetze hau, eta horrek interpretazio arazotara eramaten du, juristak erabaki beharko baitu lege berria eta aurrekoa bateraezinak diren ala ez.

Horrela adierazten du Kode Zibilak 2.2. artikuluan: *"Lege bat indargabetze hutsagatik, ez dira indarrean jartzen lege horrek indarrrik gabe utzi zituenak"*. Hortaz, arau batek indargabetzearen ondorioz indarra galduz gero, ez dira berriro ere indarrean sartuko honek bere garaian indargabetu zituenak.

f) Atzerako eragina eta atzerako eraginik eza.

Galdera zera da, lege berriak, arautu ahal izango ditu bere indarraldiaren aurreko egoerak? Legeak indargabe daitezke, baina beraiek araututako egoerak errealitatean oraindik egongo dira, eta horiek ezin izango ditugu desagerrarazi jaio ez balira bezala.

Konstituzioak 9.3. artikuluan *"banakoaren aldekoak ez diren xedapen zehatzaileen eta gizabanakoaren eskubideak murrizten dituztenen atzeraeraginik eza"* bermatzen du. Dena dela, arau honen eragina ez da horren zabala, eta Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 10eko 42/1986 Epai baten ondorioz, bermeak oinarrizko eskubideetan eta askatasun publikoetan du soilik bere eragina, aipatu epaiak honela diolarik: *"...artikulu horren mugak eta oinarrizko eskubideen zein askatasun publikoen mugak bat datoz, izan ere, pertsonaren babesaren mugak dira"*. Horrez gain, epai berak gaineratzen du, atzeraeragina, banakoak lortu eta bere ondarean sartu dituen eskubideei soilik aplikatu ahal izango diegu, baina ez ordea, oraindik jaiotzeke dauden eskubide eta egoerei, hauei lege berria aplikatu ahal izango baitiegu.

Kode Zibilak, bere aldetik, 2.3. artikuluan atzeraeraginik ezaren printzipioa

honela jasotzen du : *"Legeek ez dute atzera-eraginezko ondorerik izango, eurek aurkakoa xedatzen dutenean izan ezik"*. Kontuan izan dezagun, Kode Zibilaren artikulua hau Konstituzio aurrekoa dela eta hortaz, azaldu ditugun mugak aplikagarri gertatuko zaizkio, hots, legeak atzeraeraginezko ondorioak dituela aipatuko balu adierazpen hau ez litzateke zilegia izango Konstituzioaren ikuspegitik, alegia, disposapen zehatzaile edota gizabanakoaren eskubideak murriztuko balitu. Konstituzio Auzitegiak atzeraeraginari buruz sortu duen jurisprudentzia, hemen ere, aplikagarria suertatuko da.

Printzipio hau "Bill of Rights" zelakoan oinarritzen da, hots, estatu liberalak botere absolutuaren aurrean herritarren bermeak ezarri nahi izatearen ondorioa da. Berme honen poderioz, herritar bat ezin izango zen zigortua izan baldin eta egintza, egin zuen unean, delitutzat jotzen ez bazen. Segurtasun juridikoaren printzipioa dugu hau. Honen arabera, lege aldaketek ezin dute eragin bortizik izan lege horren aurreko garaian sortu ziren egoeretan. Aipatu printzipioaren zioa oso argia da, hots, herritarrak unean-uneko joko arauak ezagutu behar dituela eta beraz, une batean obligazioen bat existitzen ez bazen ezin diote galdatu obligazio hori betetzea, ez baitzuen ezagutzen.

Lege berria aurreko legeak arautzen zituen egoera juridikoei aplikatzen zaienean atzeraeragina dugu. Aitzitik, lege berriak aurreko legearen babesean sortutako egoera juridikoetan eraginik ez duenean atzeraeraginik eza dugu. Gehien bat, arauak atzera eragin ezinezkoak dira eta ezin izango dute aurreko egoerarik arautu, legeak indarrean sartzen diren unetik etorkizuneko egoerak arautzeko sortzen baitira.

Atzerako eraginak berdintasunaren printzipioa indartzen du, zeren eta lege berbera izango baitzaie aplikagarri egoera guztiei. Horrez gain, aipatu atzerako eraginak aukera ematen digu, gaur egun diharduten nahiz eta aurreko legeriarekin sortutako zenbait arazori erantzun gaurkotuagoa eta egokiagoa emateko.

Atzerako eraginik ezak ordea, segurtasun printzipioa indartzen du, herritarrak beti jakin ahal izango baitu aurreko legerian oinarriturik jaio izan diren harremani garai horretako araudia aplikagarri gertatuko zaiela, lege berriak ez baitu eraginik izango. Hortaz, herritarrak beti jakingo du zein diren unean-uneko joko arauak.

ii) OHITURA ETA USARIOAK.

Borondate orokorrak, herritarren ordezkartzaren bidez, arauak (legezkoak) sortzeko indarra baldin badu, alegia, gizarteak antolaketa politikoaren bitartez onartzen dituen legeak, gizarteak berak, artekaririk gabe ere, arauak sortzeko gai izango da eta honi, hain zuzen ere, deitzen diogu ohitura.

Hortaz, ohitura eta legea iturri desberdinetatik sortzen dira. Legea, gizarteak bere buruari ematen dion antolaketa politikotik sortzen da. Ohitura, berriz, gizartetik beretik sortzen da, errepikapena dela medio.

Giza multzo zehatz baten jokaera konkretu bat behin eta berriro errepikatuz eta, inguruaren arabera, betetzea beharrezkotzat jotzen bada, aipatu jokaerari ohitura deituko diogu. Jokaera hau arau juridikoa izango da eta beraz, bere ezaugarriak izango ditu, alegia, orokortasuna, abstraktu izatea eta hertsagarritasuna.

Legeari dagokionez, bigarren mailako iturri gisa agertzen zaigu, Kode Zibilak 1.3. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Horrez gain, banako batek ohitura baten aplikagarritasuna erreklamatzeko duenean auzitegiaren aurrean benetan existitzen dela frogatu beharko du, epaileek, legeekin gertatzen ez den bezala, ez baitute ohitura ezagutu beharrik. Kode Zibilaren 1.3. artikulua zera dio: *"Ohiturak lege aplikagarriak izan ezean bakarrik eraenduko du, betiere moralean nahiz ordena publikoaren aurkakoa izan ez eta ohitura hori frogatuz gero"*.

Giza multzo batean jarduten duen jokaera batek ohituratzat har dezagun, ondoko ezaugarriak izan behar ditu:

1. Publiko eta nabaria izatea, alegia, kanpoko edo jende aurrekoa. Izan ere, isilpeko usadioak edo usadio klandestinoak ezin dira zuzenbidearen ikuspuntutik aintzat hartu.
2. Epe luzean dihardutenak, hots, iraunkorrak eta etengabeak.
3. Ez erasota edo eztabaidatua izan, hau da, kontraesan edo eztabaidarik gabea.
4. Homogeneoa izan behar du, egintzen artean oinarritzko berdintasuna egon behar baitu.
5. Naturaren zuzenbidearen aurkakoa ez izatea ezta bake publiko edo moralaren aurkakoa izatea ere.
6. Orokorra izatea, alegia, toki edo komunitate zehatz bateko banako gehienek jokaera hori betetzearen beharra izatea.

Hori guztia kontuan hartuta, ikus daiteke ohituran bi elementu hartzen dutela parte: a) Elementu objektiboa, alegia, giza multzo batek behin eta berriro errepikatzen duen jokaera, zeinak aurreko ezaugarriak bete behar baititu; eta b) Elementu subjektiboa edota "opinio iuris seu necessitatis" delakoa alegia, behin eta berriro errepikatzen den jokaera hori burutzean giza multzo horrek egin behar juridiko bat betetzen ari dela uste izatea.

iii) ZUZENBIDEAREN PRINTZIBIO OROKORRAK

Arauen iturrien artean hirugarrena dugu hau, bada, aipatu printzipio orokorrak lege eta ohitura faltan aplikatuko dira soilik (KZren 1.4. art.).

Bada, zein kasutan izango dira aipatu printzipio orokor hauek arauen iturri?. Gatazka bat konpontzekoari aplikagarri gerta litzaiokeen lege edo ohiturarik ez dugunean, zuzenbidearen printzipio orokorretara jo beharko dugu.

Zer dela eta, zuzenbide printzipio orokorrei arauen iturriaren izaera eman? Galdera honi erantzuteko KZren 1.7. artikulua zer dion aztertu behar dugu lehendabizi: *"Epaile eta auzitegiek egin behar desenkusaezina dute, kasu orotan, euren eskumeneko gaiak ebazteko, ezarritako iturri-sistemari helduz"*.

Hori dela eta, epaile eta auzitegiei dagozkien arazo guztiei, iturrien sisteman oinarriturik, erantzunen bat emateko beharra ezartzen zaie. Gerta liteke, arazo hori ez legeak ezta ohiturak ere aurreikustea izan, eta kasu horretan, zertan oinarrituko liriteke epaileak beren ebaztea emateko? Hori aurreikusirik, eta badaezpada, Kode Zibilak zuzenbide printzipio orokorretara jotzeko baimena ematen die, eta beren betebeharra gauzatzeko azken baliabidea eskaintzen die.

Zer dira, bada, aipatu zuzenbide printzipio orokor horiek?

Hauetariko batzuk zuzenbideak berak espresuki jasoko ditu, baina printzipio horiek hain orokorrak izanik, askotan legeak osatzeko eta beren aplikazioan sortzen diren hutsuneak betetzeko ez dute balio. Hori dela eta, egokiagoa izaten da, hainbatetan, legetik beretik lortutako printzipio orokorretara jotzea, hau da, analogiaren bidez ateratako erakunde bakoitzaren eta arau bakoitzaren edo arau-multzoen argibide nagusi, norabide eta helburu orokorretara jotzea.

Adibide gisa, horietariko batzuk aipatuko ditugu:

- Zuzenbide tradizionalaren printzipioak.
- Naturaren zuzenbidearen printzipioak.
- Komunitatearen sinismen etikoak.
- Printzipio logiko-sistematikoak.
- Fede ona.
- Eskubide-abusurako debekua.
- Ekitatea.
- Ez-zilegizko aberastearen debekua.

5. JURISPRUDENTZIA

Jurisprudentzia ez da zuzenbidearen iturria, halere, Kode Zibilak legeen antolaketa orokorra osatzeko erabiliko dela dio.

Arauk eta legeak ez dira mekanikoki aplikatzen, aitzitik, dagokion kasu konkretura egokitu beharko dira. Horrez gain, orokorrak diren aldetik interpretatu beharko dira. Auzitegi sisteman, goi mailako auzitegiek gidagarri izaera dute behe mailakoentzat.

Kode Zibilak 1.6. artikuluan zera adierazten du: "*Jurisprudentziak antolamendu juridikoa osatuko du, Auzitegi Gorenak, legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak interpretatu nahiz aplikatzean, behin eta berriz ezartzen duen doktrinaren bidez*".

Artikulu honen arabera, jurisprudentzia Auzitegi Gorenaren epaiek osatzen dute soilik. Hau dela eta, beheagoko mailako epaile batek bere ebatzia emateko orduan, Auzitegi Gorenak finkatutako irizpideei jarraitu beharko die, horrela ez bada, epai hori indargabetu ahal izango baita. Indargabetze honi "casación" deritzogu.

Auzitegi Gorena ez diren beste auzitegi edo epaitegiek ematen dituzten sententziei edo epaiei, gainerako auzitegi eta epaitegiek ez diete printzipioz jarraitu behar izango. Dena den, egia da ere, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla entzutegi probintzialek ematen dituzten sententziak, hainbat gai gaur egun ez baititu Auzitegi Gorenak aztertzen. Entzutegi probintzialeko epai multzoari "behe mailako jurisprudentzia" deitzen diogu.

Kode Zibilak 3.1. artikuluan baliabide desberdinak ematen dizkigu arazo horri aurre egiteko "*Arauk euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzako aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta batik bat, arauen espirtua eta xedea kontuan hartuta*." Bertan jasotzen diren irizpideak aplikagarriak gertatzen dira Kode Zibilean zein beste legeetan, jasotzen diren arauak interpretatzeko, Konstituzioa barne.

6. ZUZENBIDE ZIBIL AUTONOMIKOA

FORU ZUZENBIDEEN KODEKETA

Zaragoza hirian 1946 urtean eratu zen Zuzenbide zibilari buruzko Kongresuan "*Espainiako Zuzenbide zibilaren geroko Kode orokorrean foru erakundeak sartzeko*" proposatu zen, baina hori lortu aurretik, beharrezkoa zen instituzio foralen bilketa, "*Lehengoa, foru erakundeak konpilatzea, kontuan hartuz ez euren egungo indarra soilik, baizik eta erabilpen ezak eta gaurko beharrek bertan behera utzi ez dituzten erakundeak berreskuratu beharra dagoela*".

Bistan denez, Konstituzio aurreko egoera juridikoa ez zen gai zuzenbide foralen iraupena bermatzeko, gaurkotzeak estatu mailako lege arrunt bat behar izango baitzuen, eta ziurren estatu mailako legegileen eta tokiz tokiko biztanleen interesak ez lirateke bateragarriak izango. Gaurkotze lege hori, edo ez zen aldarrikatuko, edo arazo asko izango zituen bere onespena lortzeko.

Hala bada, 1978. urtean Konstituzioa aldarrikatu egiten da eta arestian aipatu dugunaren arabera, 148. 1.8. art.an Erkidego Autonomoen esku uzten ditu berezko zuzenbideak gordetzeko, aldatzeko eta gaurkotzeko eskuduntzak. Dena dela, Konstituzioak ere muga bat ezartzen du, alegia, soilik onartzen du aipatu eskuduntza zuzenbide berezi horiek ziharduten edo mantentzen ziren tokietan, eta hortaz, denboran galdu izan balira, komunitate autonomoak zuzenbide hori berpizteko edota bereganatzeko ez luke ahalmenik izango .

Lege berria gaur egungo errealitate eta testuinguru sozioekonomikoari egokituta sortzen da eta sustraiak ditu tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidean. Eta bere eduki zehatza eztabaidagarria izan daitekeen arren, etorkizunean euskal zuzenbidea sakondu, aldatu eta materia eta eremu ezberdinetara zabaltzeko duen egitura irekia ukazina da. Legeak ez du aterik ixten, ez eta etorkizunerako aukerak mugatu edo oztopatu ere. Eta helburu horrekin, Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzeko, besteak beste, Zuzenbide Zibilaren Batzorde aholku-emailea eratzen da. Askatasun osoz idatzia eta askatasun zibila oinarritzat duen legea da. "*las leyes del Fuero son más de albedrío que de sotileza y rigor de derecho.*", zioen 1526ko Bizkaiko Foru Berriak, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 legearen 4. artikulua arabera, arauak esku emaileak izango dira. Eskubidea eta aukera, eta ez inposizioa edo ezarpena.